

EUSKALTZAINDIAK *ETXABE* IDAZLEAREN ESKUIZKRIBU BATEN DOHAINZA JASO DU

Bilbo, 2000-I-09

Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegiak "Itziar'ko Ama: Etxabe ta Aldai'tar Miren'ek euzkeratutako iru ataldun antzerkia" izeneko euskal testuaren eskuizkribua jaso berria du, Eloy Untzaluren eta lan horren egilea zen Maria Etxaberen ilobaren eskutik, Karmele Etxaberen eskutik, alegia. Akademiak urtarrilaren 19an jaso zuen dohaintza.

Maria Etxabe (Zarautz, 1905-1993) gutxi aipatutako euskal idazlea da. Euskaltzalea eta abertzalea, haren jarduna Tene Muxikaren edota Julene Azpeitiaren inguruan kokatu behar da.

Aipatu egilearen lan nagusia da Euskaltzaindiak jaso duena eta, berez, gaztelaniazko antzezlan baten itzulpena da. Ezezaguna da zehatz-mehatz noiz idatzia den, baina lehenengo aldiz Azpeitian antzeztu zen, 1929ko azaroaren 7an. Hortaz gain, lan hau saritua izan zen Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren *Juventud* aldizkariak antolatutako literatur-lehiaketan.

Euskaltzaindiak dohaintza hau goraiatu nahi du, eta bide batez euskal idazle ezezagun honen lana ikerle eta euskaltzaleen esku izango dela adierazi.